

KONTRATUA

Bermeon, 2019ko uztailaren 24an.

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andrea, Bermeoko Udaleko idazkari nagusia nazar honen aurrean

Alde batetik, **ARITZ ABAROA CANTUARIENSE** jauna, Bermeoko Udaleko alkatea, [REDACTED] [REDACTED] zenbakiduna, udal honen ordezkari eta izenean (P4802100J IFZ), Tokiko Araubideko Oinarrien Legearen 21.1.b), ñ) eta r) artikuluek emondako ahalmenaren arabera, Irakaskintza 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxea) – 48370 BERMEO jakinarazpenetarako helbidea daukana eta P4802100-J IFK zenbakiduna, hemendik aurrea, **ENPRESA**

Eta bestetik, **AMAIA LUZARRAGA ROJADO** andrea, [REDACTED] zenbakiduna, Izaro Abesbatza Elkartearen Lehendakaria, [REDACTED] zenbakiduna, jakinarazpenetarako helbidea Irakaskintza 14-16 (Kultura etxea) – 48370 BERMEO daukana **IZARO ABESBATZA** ordezkatzuz, hemendik aurrera **ARTISTA**

Esleipendunak, bera eta ordezkatzuz dauan enpresek, ez eta beragaz lan egingo dabenean, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 65. eta 71. artikuluan zehaztutako ezgaitasun eta bateraezintasun kasuetan ez dagozala adierazi dau.

Gainera, bat dator Gizarte Segurantzako eta Ogasuneko betebeharrekin.

Eta kontratu hau sinatzeko bata besteari ahalmen nahikoa aitortzen deitsoela, honako klausula honek kontuan hartuz:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Kontratuaren xedea.-

Bermeoko Udala bereziki interesatuta dago **ARTISTA** kontratatzeko 2019ko **ABUZTU**aren 6an, 20:00etan, Bermeoko **SANTA MARIA ELIZAN** musika kontzertu bat eskaintzeko.

BIGARRENA: Prezioa.-

Kontratu honetan aipatzen dan lanagaitik, lehenengo klausulan aipatzen dana, **ENPRESA** 1.000 euro ordainduko dau (**BEZ** salbuetsita), banku transferentzia bitartez, **ARTISTAK** faktura aurkeztu ondoren, eta Udalak onartu ostean, hogeita hamar eguneko epean.

HIRUGARRENA: Kontratuaren izaera.-

Kontratu pribatu bat da.



LAUGARRENA: Kontratuaren esleipena.-

Esleipen eguna: 2019ko uztailaren 17an

Esleipena onartu dauan organoa: Zinegotzi Delegatuaren Dekretua

BOSTGARRENA: Kontratua ez betetzea.-

ARTISTAK honako arrazoi honengaitik bakarrik geratu leiteke kontratua betetu barik:

- Gaixotasuna; behar dan moduan kreditatua.

Kasu honetan, ENPRESAK jarritako datan ikuskizuna ezin betetzearen arrazoi egiaztatua eta sinatuta jaso behar dau.

Aipatutako egoera gertatuko balitz, ARTISTAK ikuskizunerako data barri bat emongo leuskio ENPRESARI eta honek onartzen badau, saio barrirako kontratu honetako klausulak mantenduko litzatekez.

Berriz, saioa ez bada egiten Enpresak ez dau ordainduko bigarren klausulan agertzen dan prezioa.

SEIGARRENA.-

ARTISTAREN ardura izango da saioa egiten dauen artistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dagozan legezko xedapenak betetzen dauzela ziurtatzea. Bereziki, artistak saioa egin ahal izateko, Gizarte Segurantzaren altan emonda egon behar dau eta indarrean dagozan xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzaganazko betebeteharrak egunean euki.

ZAZPIGARRENA.-

Kontratu honetan ezartzen ez dan guztirako, ondorengo legediak eraenduko dau:

- Sektore Publikoaren Kontratuen Legea, 9/2017, azaroaren 8koa.
- Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Toki Erregimenari jagokozan indarreango xedapenen Testu Bateratua onartzen dauen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua.
- Zuzenbidezko Arau Pribatuak, aitaturako xedapenetatik atera ezin daitekeezan interpretazino, eragin, eta kontratuen betetea eta iraungitea sortarazo leikiezan arazoak konpontzeko, ordeko zuzenbide legez izango dira aplikagarriak.

ZORTZIGARRENA: Jurisdikzioa.-



Kontratu honetan adostutako atalen bat ez betetzea gertatu ezker, alde biek Bilboko auzitegien menpean geratzen dira, jagokon beste edozeini uko eginez, kontratu honen interpretazio, betetzea edo ez betetzearen ondorioz.

EZ DAGO KLAUSULA GEHIAGORIK

Alde biek adostuta laukoiztuta sinatzen dabe kontratu hau,

BERMEOKO UDALA

IZARO ABESBATZA


ARITZ ABAROA CANTUARIENSE




AMAIA LUZARRAGA ROJADO

BERMEOKO UDALEKO IDAZKARI NAGUSIA


JURDANA URIARTE LEJARRAGA





